

txinpart

hautzaro ikastolako aldizkaria

2009ko ekaina • 44. zenbakia





aurkibidea

HAURTZARO INFORMATZEN

3

HATZAK BETE LAN

15

EUSKARAREN TXOKOA

30

IKASTOLAREN EGUNA

25

GURASOOK JAKIN DEZAGUN

34

GU ERE KAZETARI

39

NAHASTE BORRASTE

42



Haurtzaro ikastola Europako Kooperatiben familia handian sartuko da



Ekainaren 2an aparteko Batzar Nagusi Berezia egin zen ikastolan, arratsaldeko 6:30ean, jantokiko Areto Nagusi berrian. Gai zerrenda ez zen luzea izan, baina garrantzitsua bai, oso: Europar Kooperatiba Elkartearen kooperatiba elkarte eratzailean sartzeko erabakia hartu zen.

Euskal Herriko lurralde bakoitzetik hiru ikastola izendatu dituzte elkarte horretarako. Gipuzkoatik, Bizkaitik, Arabatik, Nafarroatik eta Ipar aldetik hiruna. Hamabost guztira. Horietako bat Haurtzaro izan da, eta erronka handi horri erantzuteko eta behar den erabakiak hartzeko egingo da Batzar Berezi hori, Kooperatiba Elkarte Eratzailea sortzeko, alegia.

Lehenengo Kooperatiba Elkarte Europarra eta bakarra Italian daukate, eta hau bigarrena izango litzateke. Horretarako behar diren formalizazio guztiak ekainaren 13a baino lehen egin behar direnez, hilaren 2an izan da aparteko Batzar Nagusia.

Orain dela bi urte ekin zion ikastolen kolektiboak barne antolaketari buruzko hausnarketari. Prozesu horren ondorioz plazaratu zen IKASTOLAK ORAIN ETA GERO izeneko dokumentua. Bertan azaltzen denez, ikastolek elkarte berri hori sortu behar dute, ekainaren 13rako. Sortze batzar hori egiteko, ezin-

bestekoa da ikastolek formalki elkarte berri hori sortzea eta bertan bazkietza onartzea. Horretarako egin da Batzar berezia.

Badira 50 urte ikastolak lanean hasi zirela, eta bide luze horretan, oztopo asko gainditzeaz gain, egokitze lana izan da ikastolen zereginik zailena. Egokitu egoera politikoetara, lege egoeretara, banaketa administratibora... unean uneko beharretara. Baina inoiz ere baztertu eta ahaztu gabe, ikastolek sorreratik duten ezaugarri nagusia: Herri izaera. Herriak sortua eta herriarentzat egin. Euskal Herriko Hezkuntza Proiektua.

Gaur egun martxan dauden Proiektu guztietan aitzindari izan dena eta dena. Ikastolen ezaugarri nabarmenetako bat horixe izan delako, eten gabeko eguneratzea. Eta ez bakarrik eremu pedagogikoan (eleantiz proiektua, hizkuntza proiektua, material propioa, IKT, Euskal Curriculum, IKASYS...), baita eskola eremuan ere.

Horregatik, Euskal Herriko eskola nazionalaren egitura egokiena ez dela ikusirik, eta Europar europar kooperatibaren aukeraz baliatuz, egituraketa berritzeari ekin diote. Europar kooperatiba bat sortuko dute. Legea indarrean dagoenetik, euro-



par bigarrena izango litzateke. Horretan ere aitzindari.

Ekainaren 2an egin den Batzar Bereziaren ondoren, ikastolen Hezkuntza Proiektua egokitzeari eta berri-tzeari ekingo diote. Ikastolen mugimendua asko indartuko baita, asko sendotuko.

Ikastolen hezkuntza eredua, eredu nazionala bakarra izango da, erakunde berri bihurtzeak izaera hori indartu egingo baitu.

Ikastolek indarrean duten elkartasun kutxa ere sendotu egingo dute. Horrekin batera, Euskal Herrian hezkuntza eredu erreferentea izango da. Ikastolak izan dira euskara ikasgelara eraman dutenak. Beste ikastetxeak ondoren etorri dira. Eta honetan indartzen lagunduko die egitura berriak.

Proiektu berriak garatzeko aukera hobeak izango dituzte. Orain bertan ere, ikastoletan Euskal Curriculum aplikatu da, ikastolen Euskal Curriculum, administrazioak jasotzen duena baino aurrerago doana.

Ikastolen herri izaerak ere bultzada handia hartuko du egitura berriarekin. Erakunde bihurtze honek lagunduko die publiko/pribatu okerreko dikotomia gaingitzen. Espainian eta Frantzian publikoaz ulertzen dena eta Europako beste lurraldeetan ulertzen dena ez baita gauza bera. Eta ikastolek badakite zein izan den, zein den eta zein izango den beren izaera: herritarrak, herriarenak eta herriarentzat. Publikoetan publikoenak.

Beraz, ikastolek, oro har, garbi daukate asko daukate irabazteko egitura berri horren teilatupean.



Ibilaldiak eta Ekintzak

MAILA	NOIZ	NORA	HELBURUA
HAUR HEZKUNTZA			
HH1	APIRILAK 24	KARRIKARA	BASERRIKO ANIMALIAK IKUSI
HH1	MAIATZAK 12	ITURRIOTZA	HEGAZTIAK IKUSI
HH1	MAIATZAK 19	UGALDETXORA	BARATZAK IKUSI
HH1	EKAINAK 5	ZUMAIARA	ZULOAGA MUSEO IKUSI
LEHEN HEZKUNTZA			
HH1, HH2 ETA HH3	MAIATZAK 12	PIANOAREN EMANALDIRA	MUSIKAREKIN GOZATU
HH2 ETA HH3	MAIATZEAN	LIBURUTEGIRA	LIBURUTEGIA EZAGUTU
HH2 ETA HH3	MAIATZEAN	PISZINARA	URAREKIN GOZATU
HH2 ETA HH3	MAIATZAK 26	ZINEMARA	PELIKULA IKUSI
HH3	MAIATZAK 27	MUSIKA MUSEORA	MUSIKA TRESNAK EZAGUTU
HH3	EKAINAK 4 ETA 5	HONDARRABIRA	ELKARREKIN GOZATU
HH3	EKAINAK 11	ERLEAK IKUSTERA	ERLEEN MUNDUA EZAGUTU
HH2 ETA HH3	MAIATZAK 29	UDALETXERA	IBARGAINGO EMANALDIAZ GOZATU
LH 1. MAILA	APIRILAK 21	IKASTOLAN	IRAKUR ZALETASUNA BULTZATU
LH 1. MAILA	APIRILAK 30	OIASO MUSEOA (IRUN)	ERROMATARREN AZTARNAK GERTUTIK EZAGUTU
LH 1. MAILA	MAIATZAK 11	PAGOETAKO NATURGUNEA	NATURA AZTERTU
LH 1. MAILA	MAIATZAK 28	OIARTZUNGO UDALETXEKO ARETO NAGUSIAN	IBARGAIN MUSIKA ESKOLAKO KONTZERTUAREKIN GOZATU
LH 1. MAILA	EKAINAK 11-12	LESAKA	AUTONOMIA LANDU ETA ELKARREKIN GOZATU
LH 1. MAILA	EKAINAK 18	IKASTOLAN DBH-KOEN ANTZERKI EMANALDIA	ANTZERKIA GERTUTIK BIZI
LH 2. MAILA	HIRUHILABETEAN ZEHAR	HERRIKO LIBURUTEGIRA	LIBURUTEGIEN ERABILPENA EZAGUTU ETA BULTZATU
LH 2. MAILA	APIRILAK 21	PELLO AÑORGA IPUINA KONTATZEN	IRAKURZALETASUNA BULTZATU
LH 2. MAILA	APIRILAK 23	OIARTZUN IRRATIRA	IRRATI SAIOAREN GRABAKETA
LH 2. MAILA	APIRILAK 27	BESTE GELETARA	IRAKURZALETASUNA BULTZATU
LH 2. MAILA	MAIATZAK 6	OIARTZUNEN ZEHAR IBILALDIA	OIARTZUNGO INGURUNEA BEHATU
LH 2. MAILA	MAIATZAK 11	PIANISTAREN KONTZERTUA	MUSIKAZ GOZATU
LH 2. MAILA	MAIATZAK 28	UDALETXEKO PLENO ARETORA	IBARGAINEKO KONTZERTUA ENTZUN
LH 2. MAILA	EKAINAK 8-9	SASTARRAIN	BIZIKIDETZA
LH 3-4. MAILAK	APIRILAK 23	SAN MARKOSERA	ZIKLOKO EKINTZA
LH 3-4. MAILAK	MAIATZAK 11	IKASTOLA	PIANO EMANALDIA. MUSIKA KLASIKOA ENTZUN
LH 3-4. MAILAK	MAIATZAK 28	XIBA	PILOTAREN INGURUKO EKINTZAK
LH 3. MAILA	MAIATZAK 5	MENDIBILGO TXARARA	EKOSISTEMA BEHAKETA
LH 3. MAILA	MAIATZAK 28	UDAL PLENOAN KONTZERTUA	IBARGAIN MUSIKA ESKOLAREN GONBIDAPENA
LH 3. MAILA	MAIATZAK 29	IRAKURKETA TXOKORA	EUSKARAZ BIZIKO 3. KANPAINAREN INGURUAN, IRAKURZALETASUNA LANDUZ
LH 3. MAILA	MAIATZAK 30	UDAL LIBURUTEGIRA BISITA	EUSKARAZ BIZIKO 3. KANPAINAREN INGURUAN, IRAKURZALETASUNA LANDUZ
LH 3. MAILA	EKAINAK 17-18	BERTIZA	2 EGUNETAKO EGONALDIA
LH 4. MAILA	EKAINAK 15-16-17	BARATZERA	3 EGUNETAKO EGONALDIA



LH 3. ZIKLOA	APIRILA- MAIATZA	ZIKLOKIDEEN ARTEAN	EUSKARAZ BIZI
LH 3. ZIKLOA	MAIATZAK 11	IKASTOLAN	MUSIKA KLASIKOA, ENTZUNALDIAK
LH 3. ZIKLOA	MAIATZAK 28	UDALETXERA	BIDE HEZIKETAN LANDUTAKOAREN ETA ESKAEREN AZALPENA ALKATEARI
LH 5. MAILA	EKAINAK 9	PAGOETARA	LANDARETZA, INGURUMENA
LH 5. MAILA	EKAINAK 10,11,12	GASTEIZA	HARREMANAK LANDU, INGURUA EZAGUTU ETA DISFRUTATU
LH 6. MAILA	MARTXOAK 27	JANTOKIRA	KONPOSTATZEA ZER DEN IKASI ETA BERTAKO KONPOSTATZAILEA EZAGUTU
LH 6. MAILA-DBH 1-2	APIRILAK 21	IKASTOLAN	XXVII. LEXOTI SARIA
LH 6. MAILA-DBH 1-2	APIRILAK 24	VILLABONAN	ESKOLARTEKO BERTSOLARI GAZTETXOEN TXAPELKETA
LH 6. MAILA	MAIATZAK 11	IKASTOLAN	PIANO EMANALDIA
LH 6. MAILA	MAIATZAK 19	MADALENSORON	BERTSO JAIALDIA
LH 6. MAILA	EKAINAK 8	IKASTOLAN	J.M. ITURRALDE IDAZLEAREKIN ELKARRIZKETA
LH 6. MAILA	EKAINAK 10,11 ETA 12	ETXARRI-LARRAUN (NA)	TXANELAN IKASITAKO HAINBAT GAI ERREPASATU ETA GURE ARTEKO HARREMANAK SENDOTU
DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA			
DBH 1. MAILA	MARTXOAK 31	ERRENTERIARA	HERRI KIROLAK PRAKTIKATU
DBH 1. MAILA	APIRILAK 27	IKASTOLAN	ANGEL M. PEÑAGARIKANO BERTSOLARIAREN BISITA
DBH 1. MAILA	EKAINAK 10-11-12	BARRIA (ARABA)	IKASTURTE AMAIERA DELA ETA DISFRUTATU ETA GOZATU
DBH 1-3. MAILA	APIRILA-MAIATZA	IKASTOLAN	BIDE HEZIKETA
DBH 1-2-3-4	MAIATZAK 7-11	IKASTOLAN	XABIER LIZASOREKIN PIANO EMANALDIA
DBH 1-2-3-4	EKAINAK 3-4	IKASTOLAKO JANTOKIRA	KONPOSTATZEA ZER DEN IKASI ETA BERTAKO KONPOSTATZAILEA EZAGUTU
DBH 2. MAILA	APIRILAK 23	IRUNA	OIASO MUSEOA BISITATU
DBH 2-4. MAILA	MAIATZEAN	IKASTOLAN	DROGOMENDEKOTASUNAREN PREBENTZIO TAILERRA
DBH 2. MAILA	MAIATZAK 7 zientzi tailerrekoak	ERRENTERIA-OIARTZUN	OIARTZUN IBAIAREN AZTERKETA
DBH 2. MAILA	MAIATZAK 20	IKASTOLAN	KALAPIE ELKARTEKOEKIN BIZIKLETA TAILERRA
DBH 2. MAILA	EKAINAK 4	ERNIOKO KOBAZULORA	ESPELEOLOGIA PRAKTIKATU
DBH 2. MAILA	EKAINAK 10-11-12	ACEDO (NA)	ZIKLOARI AMAIERA POLITA EMAN
DBH 3. MAILA	MAIATZAK 15	IKASTOLAN	AESLEME TALDEKOEKIN HITZALDIA
DBH 3. MAILA	EKAINAK 2	IRUNA-HENDAIRA	OIASO MUSEOA ETA ABBADIA GAZTELUA BISITATU
DBH 3. MAILA	EKAINAK 10-11-12	GORLIZ (BI)	IKASTURTE AMAIERA DELA ETA DISFRUTATU ETA GOZATU
DBH 4. MAILA	APIRILAK 1-2	SEXUALITATEARI BURUZKO SAIOAK IKASTOLAN	IKASLEEK SEXUALITATEARI BURUZ DUTEN INFORMAZIOA GEHITU ETA HOBETU
DBH 4. MAILA	MAIATZAK 5	IRUNGO AMAIA ANTZOKIRA	"ENTRE LES MURS" FILMA IKUSI
DBH 4. MAILA	EKAINAK 3	ARDITURRIRA BIZIKLETAZ	MEATEGIAK BISITATU
DBH 4. MAILA	EKAINAK 5	ERRENTERIKO NIESSEN ARETORA	"SOMMER JAUNAREN ISTORIA" ANTZERKI SAIOA IKUSI
DBH 4. MAILA	EKAINAK	COMA-RUGA (CATALUNYARA) 8-9-10-11-12	IKASTOLAKO IBILBIDEARI AMAIERA POLITA EMAN



Paris 2009

Azkar pasatzen da denbora... Beste urte batez Parisen, Oiartzoko Frantseseko taldea.

On s'est amusé, vraiment.

On a fait une nouvelle visite cette année: La Cité des Sciences, où on a regardé un beau film sur la vie du peintre Vincent Van Gogh. Cela a été très intéressant.

À l'année prochaine Paris... On s'en souviendra.



HEZKUNTZA AFEKTIBO-SEXUALA HAURTZARO IKASTOLAN

Sexualitatea eta afektibotasuna pertsonen bizitzako zati garrantzitsua dira. Hezkuntzaren oinarritzko helburua ikasleak gizartean integratzea bada, ezinbestekoa da dimentsio afektibo eta sexuala koherentziaz lantzea ikastolan.

DBHn gai honi Etika arloan heltzen zaio eta ikasturtean zehar landutako gaia izan da. Baina aurten, bereziki, aditu baten bisita jaso dute. Izan ere Garbiñe Merino pedagogo eta sexologoa aritu da gai hau lantzen DBH 2., 3. eta 4. mailako ikasleekin. Horretarako hiruna saio jaso dituzte maila hauetako ikasleek.

Hezkuntza afektibo-sexuala lantzeko komenigarria ikusi dugu Haurtzaroko arduradunok eskolaz kanpoko aditu bat ekartzea, hau da, sexologian formakuntza duen aditua. Izan ere, hezkuntza afektibo-sexuala lantzeko nerabeekin (harremanak izateko moduak, intimitatea, sentimenduak, beldurrak...), nerabeentzako errazagoa da eskolaz kanpoko adituarekin lantzea, pertsona hori ez baita gurasoekin eta beste irakasleekin eguneroko harremanetan arituko. Kanpoko adi-

tuaren aurrean, ikasleek ziur aski askatasun gehiago sentituko dute "intimotzat" jotzen diren gaiak eta jarrerak lantzeko.

Gurasoek ere izan dute aditu honekin hitz egiteko parada. Izan ere, bi saio antolatu dituzte eurekin.





XXVII. LEXOTI SARIA OSPATU GENUEN IKASTOLAN

XXVII. Lexoti Saria ikastolan. Badira urte batzuk, beraz, ikastolan bertsoaren graziak erakarrita, kantari hasi zirela. Tokitan daude Karlos Aizpurua, Aitor Arbelaiz, Aitor Etxebeste, Ixiar Elizondo, Juan Mari Lopez, Asier Bergaretxe, Iñaki Pikabea, Andutz Labandibar eta ahaztuta ez daukagun ondorengo zerrenda luzea. Hogeita zazpi urte igaro dira, eta oraindik mar-txan dago orduko gurdi zaharra.

Aurten ere hortxe aritu ziren ikastolako oraingo bertsolari berriak kantari, joan den apirilaren 21ean. Azken urteetako edizioetan bezala, aurtengoan ere bi atal izan zituen jaialdiak. Bertsoaren bi bertsoiak, bi aurpegiak ikusteko eta entzuteko aukera izan zuten ikastolako ikasleek, bertako areto nagusi berrian. Bertso idatzien atala eta bat-batekoena.

Bersopaperetan, Lexoti sariko irabazleek beren bertsoak kantatu zituzten mikrofono aurrean. LHko 6.mailako irabazlea, Iraitz Mateo izan zen. DBH 1eko txapelduna, berriz, Haizea Saez de Eguilaz. Eta DBH 2ko garailea, Olaia Sanchez.

Olaia bi bertso idazteko gaia hau izan zuen: Badakit zergatik izan nahi dudan euskalduna. Lehenengo bertsoa honela amaitu zuen: norbaitek niri galdetzen badit/ zergatik ta zertarako?/ Euskal Herriko hizkuntza berez/ euskara bera delako. Eta bigarrenak honela zioen: Euskaldun ginen, gara ta orain/ izatea ez ukatu/ inolaz ere izandakoaz/ guk ezin baitugu ahaztu/ beti euskaraz hitz egitea/ guk denok dugu hautatu/ bihotz barruko sentimenduak/ ezin baitira aldatu.

Saio berean, esan bezala, bat-bateko bertsoak entzuteko aukera ere izan zuten bertaratu zirenek. Aurren-aurrena, 6.mailako gaztetxoek, agurrak kantatu zituzten. Ondoren, DBHko 1. eta 2.mailako bertso eskolako ikasleak aritu ziren. Horiek era guztietako ariketak egin zituzten mikrofono aurrean. Gaia emanda bertsoa kantatu, lau oinak emanda bertsoa osatu, azken puntua emanda... Amaieran, berriro 6.mailako ttikien eskutik joan ziren azken agurrak.

Hautzaro ikastolako ikasleak hain gaztetan bertso-tan aritzeko gauza izatea, ez da kasualitate hutsa izango noski. Eskolordutako lanaren eta bertso eskolaren ekimenaren ondoria, baizik. Bertsogintza era horretan lantzea, ez da modu aldrebesena, egungo ahozko adierazpen eskasa indartzeko eta bizkortzeko. Datorren urtean, 28. Lexoti Saria.





ESKOLA AGENDA 21: **Aurten ere mugitu gara!**

Zer da Eskola Agenda 21?

Eskola iraunkor baten apustua egin zuen ikastolak Eskola Agenda 21 hitzarmena sinatu zuenean. Daki-zuenenez, ikasturte bakoitzean, ingurumenarekin erlazioaturiko gai bat aukeratzen da eta horixe lantzen dugu urte osoan zehar. Abiapuntua izaten da eskola eremuan egindako diagnostikoa eta honen arabera ekintza plana jartzen da martxan. Bosgarren urtea dugu ekimena martxan jarri genuenetik eta aurtengoa ere mugikortasun iraunkorra izan dugu helburu.

Eskola iraunkorra edo jasangarria?

"Eskola Iraunkorra" edo "Mugikortasun iraunkorrak" aipatu ditugu, baina badirudi kontzeptuok beste behin ere aldatu beharko ditugula, berriz ere "Eskola Jasangarria" edo "Mugikortasun Jasangarrira" itzuli behar dugula. Orduan badakizue! Aldatu "txipak", kostako zaigu eta!

Zer egin dugu aurten?

Bai, aurten ere mugitu gara, oinez ez ezik bizikletaz ere mugitu gara. Hori izan baita aurtengoan DBH-ko erronka: bizikletaren erabilera bultzatzea. Baina ez edonola, erabilera egoki eta seguruak bideratu behar ditugu eta hori lantzen jardun gara: Erabilera egokia

bultzatzeko foiletoak egin ditugu eta bide seguruen azterketan ikastolarako bidearen oztopo mapak eraiki ditugu. Ikastola eremuan auto-pilaketaren azterketa ere egin dugu, hau ere muga izan baitaiteke bizikletaren erabileran.

HH eta LHko ikasleekin mugikortasuna eta haurren autonomia lantzen murgildu gara.

Izan ere, ikerketek zera erakusten dute: haurren autonomia eta askatasun mailan atzerapenak omen daude. Lehengo hurrek 6-7 urtetarako, ikastetxera bakarrik joan, kalean lagunekin jolastu eta enkarguak egiten zituzten. Gaur egun, 10-11 urterekin hasten omen dira. Bideratu diren ekintzen artean, Oiarzungo aiton-amonekin elkarriketak bideratu ziren atzoko eta gaurko ohituren azterketa eginez. Haurrak, beren kabuz egin ditzaketen ekintzak aztertu dituzte, beti ere beren autonomian sakondu nahian.

Martxoaren 23-27 bitartean Mugikortasun astearen herri-ekimena egin zen eta honen barruan hainbat hitzaldi, zirkuitu eta lehiaketa izan ziren. Aipamen berezia merezi du "bizikleta lehiaketak", zaborretarako gaiekin egin behar zenak, izan ere, June Manjarres Haurtzaro ikastolako ikasleak eraman baitzuen saria.



Aiton-amonen elkarriketa





Zarata eta abiaduraren neurketa



Zarata eta abiaduraren neurketa



June Manjarres: zaborretara botatzen ditugun gaiekin egindako txirrindaren irabazlea

Udalbatzarra 2009

Maiatzaren 28an egindako udalbatzarrean, haur eta gazteek hartutako konpromezu eta eskaerak Udalari helarazi zizkioten. Haurren autonomia garatzeko edo eta bizikletaren erabilera segurua eta arduratsua bultzatzeko bideak ireki beharko baititugu. Eskaerei erantzunez, Udalak ikastetxeetara bizikletak jartzeko egiturak bideratuko ditu eta ikastolak jantoki atzeko itxituran ezarriko ditu, hori izango baita hemendik aurrera bizikleten gordailu itxia.

Aurtengoa amaitzeaz dagoen honetan, datorren ikasturterako Mugikortasunarekin jarraitu dugun lan ildo bertsua jarraitu beharko dugu, baina zein ote da hurrengo urteko gaia?



Auto-pilaketen azterketa



Txirrinda irabazlea



Urteko Sarituak

SOINU ZAHARRA/ AURRESKUA	Ane Cruz. Soinu zaharra. Gipuzkoako ligako A sailean 1. saria. • Izar Aizpuru. Soinu zaharra, Gipuzkoako ligako B sailean 2. saria; Euskal Herriko 3. saria • Naroa del Río. Soinu zaharra. Villabonan 1. saria. • Ane Lizarraga. Soinu zaharra. Gipuzkoako ligako A sailean finalista. • Aritz Olarte eta Ekain Susperregi. Gipuzkoako aurreku txapelketa: Erreterria, Beasain, Oiartzun, Azkoitia, Azpeitia eta Elgoibarren sailkatuak
ARRAUNA	Peio Kazabon. Gipuzkoako 2. saria; Euskadiko 2. saria ; Espainiako 4. saria.
GIMNASIA ERRITMIKOA	Udane Alberdi, Ekhiñe Irazusta eta Nerea Oiartzabal. Diploma (taldeka) Usurbilgo tximeleta txapelketa. • Enara Irigorri. Diploma (taldeka) Tolosako txapelketa. • Amaia Ostolaiz eta Maialen Ibargoiñen. A kategorian, taldeka, 2. saria.
JUDO	Gorka Aduriz. Gipuzkoako txapelketa. • Iñigo Ruiz de Azua. Gipuzkoako txapelduna. • Uxue Urkia. Euskadiko txapeldunordea. • Miren Idarreta. Trofeo San Prudentzio, txapelduna; Torneo transpirenaico, txapeldunordea; torneo internacional (Iruñea), txapelduna. • Izaro Idarreta. Gipuzkoako txapelduna.
KENPO KAI	Paul San Sebastian, Lander Jimeno eta Aitor Torres. Euskal Herriko 1goa. • Naiara Benitez. Euskadiko txapelduna.
SAMBO	Uxue Urkia. Espainiako txapelduna.
PILOTA	Iker Kortajarena, Aitor Leonet eta Xabier Oiarbide. Neguko txapelketan 1. saria. • Asier Fernandez, Imanol Ugalde eta Oihan Astigarraga. Neguko txapelketan 2.saria. • Xabier Eizmendi. Neguko txapelketan 3. saria. • Unai Flaño, Egoitz Etxabe eta Nikolax Kazabon. Xanistebanetako 1. saria. • Jon Otegi, Iker Mujika eta Mattin Kazabon. Gipuzkoako eskolarteko txapelketan 1. saria. • Xabier Azpiroz eta Lander Pikabea. Bortzirietako txapelketako txapeldunak. • Andoni Ugalde eta Mikel Zapirain. Bortzirietako txapelketako azpitxapeldunak. • Andoni Ugalde. Gipuzkoako txapelketan, azpitxapelduna. • Oier Sarasti. Banaka, binaka finala trinketeen txapeldunordea.
FUTBOLA	Borja Alustiza. Zubietako torneoa.
ESKUBALOIA	Garikoitz Bautista. Liga vasca maila igoera.
JOCKEY IZOTZ GAINEAN	Jagoba Zapirain. Madrilan 2. saria. • Iñigo Gainza. Euskal Herriko txapeldunak.
IGERIKETA	Aitor Leonet. Zarautzen 1. saria • Ainhua Irigorri. Ordizian, 50 metro braza: 2. saria. • Luken Jimenez, Aitor Sagastuy eta Gotzon Retegi. San Esteban saria. • Andere Gaztelumendi. Euskadiko txapelketan bi urrezko domina. • Irati Cabornero. Euskadiko txapelketan hirugarren, bizkar estiloan.
MARRAZKETA	Udane Etxebeste. Iruñen. • Beñat Ibargoiñen. Oiartzungo Haize zabal lehiaketa 2. saria • Enara Irigorri. Erreterrian. • Sara Alberdi. <i>Pinturas Iztia</i> 1. saria.
LITERATURA	Aiora Mancheño, Xuban Martiarena, Beñat Azkarate, Oier Etxebeste, Jokin Irastorza, Maddi Agudo, Aitor Eizmendi, Aintzane Toledo, Uxue Telletxea, Maria Lizarralde, Uxue Barrenetxea, Ziortza Salaberria, Izaro Toledo, Ane Gainza, Iker Irigorri, Estitxu Cruz, Ariane Errandonea, June Retegi, Olaia Azpiroz, Udane Loidi eta Eneko Huitzi. Oiartzungo Udaleko 2008 Prosa eta Poesia lehiaketan saridunak. • Oihan Lopez. Oarsoaldeko <i>kontaidazu ipuin bat</i> ipuin lehiaketan saritua. • Lierni Tello, Jokin Arbelaitz eta Jon Atxaga. Gipuzkoako Idazle gazte lehiaketan: 1. saria, 2. saria eta 3.saria poesian, hurrenez hurren. • Estitxu Cruz. Euskadiko Urruzuno saria, poesian 1. saria. • Jara García. XXV. Mari Karmen Alzueta saria, ipuin lehiaketa, II. Maila 1. saria 2008
BERTSOLARITZA	Iraitx Mateo, Olaia Sanchez eta Haizea Saez de Eguilaz. XXVII. Lexoti Saria. Iraitx Mateo eta Irati Huitzi. Gipuzkoako Eskolarteko Bertso Txapelketa- Bertso paperak-aipamena.
MUSIKA	Nahia Aguado. Donostiako Nazioarteko lehiaketa internazionala piano, 3. aipamena. Eider Zabaleta. Oh Happy Day! lehiaketan txapeldun.
SURF	Etham Egiguren. Gipuzkoako txapelduna.
EUSKO JAURLARITZAren beka atzerrian musika ikasteko	Estitxu Cruz eta Goihaitz Perez. Atzerrian hizkuntza (ingelesa, frantsesa, hurrenez hurren) ikasteko, sakontzeko... beka





HAURTZARO MENDI TALDEAREN ESKUTIK EUSKAL HERRIA EZAGUTZEN

Haurtzaro Mendi taldeak aurten ere antolatu ditu aski ibilaldi politak. Guztira zazpi paraje berri eza-gutu ditugu eta horietaz gozatu. Egindako txango horien kronika laburtua daukazue ondorengoa:

URRIAK 26

Oiartzungo bira – 4. etapa **ESKAS – AÑARBE**

Urriaren 26an ospatu genuen Haurtzaro mendi taldearen aurtengo ikasturteko lehen irteera. Horrela bada, goizeko 8:00etan ikastolako aparkalekuan 27 lagun bildu ginen eta autobusak Eskaseko sarreraraino eraman gintuen. Ibilbidea Iturrolako iturritik hasi genuen eta Zumalikaurretik jaitsi eta Iturrolako ibaia jarraituz Eraingo basotik pasatu ondoren, Berdabio-ko Makinetxera iritsi ginen.

Berdabion, ibilbide honetan ikusi genituen argi indarreko bi zentraletako bat zegoen. Bertan zentraletako arduraduna zegoen mendizaleoi xehetasun guztiak argitzeko: bertako makinak ikusteaz gain, bertan sortzen den energi-iturria nola kudeatzen duten ikasi genuen. Igandean hiru makinatik bakararra zegoen martxan, mendian ur gutxi zegoen eta. Bertan hamaiketako egiteko aukera ere izan genuen.

Ondoren, Zaldintarren zubiaren gainetik pasatu eta kanalaria jarraituz, Okilleko Makinetxera iritsi ginen. Hango baserrian sagardoa egiteko dolarea ikusi genuen, duela gutxi aurtengo sagardoa egiten erabiltia. Ondoren bigarren argi indar zentrala ikusteko aukera izan genuen.

Jarraian, Okilleko presatik, Añarbeko erreka jarraituz, Urraide zubira heldu ginen. Hantxe hasten da

Añarbeko presa, eta bukatu zen Oiartzungo Birako 4. etapa. Argazkiak atera eta berriro autobusean etorri ginen herrira. Bira honetan Goizueta herriarekin egiten den muga jarraitzeko eta ezagutzeko parada izan genuen. Aurretik adierazi bezala, itzulerara ordua eguerdiko ordu bietan izan zen.

Gustura itzuli ginen guztiak, goiz aparta pasa ondoren.

AZAROAK 16

ZORROZPE – ERLO – AZPEITIA

Ikasturte honetako bigarren irteerak Izarraitzko mendigunera eraman gintuen; zehazki bere gailur nagusira, Erlora. Esan beharra dago Erlo dela Iberiar penintsulako mila metrotik gorako mendien artean itsasoa hurbilen daukan gailurra.

Autobusak Elgoibartik, Azkarate gainetik eta Azkoitiko Madarixa auzotik barrena Zorrozpoko aparkalekura eraman gintuen. Ibilbidea hasteko, basoan barrena, malda askorik gabeko pista jarraitu genuen. Bidegurutze batean gora hasi ginen eta pagadi ederra pasa ondoren Izkiturriko iturrira iritsi ginen. Metro batzuk gorago Zamalekuko lepoan Azpeititik datorren pistarekin topo egin genuen. Ezkerrera jarraituz, pistatik batzuetan eta belarretatik besteetan, Erloko tontorrera (1026 m) iritsi ginen.

Atzera egin eta belardi batzuetatik behera Putzuaundiko putzura iritsitakoan bere ondoan dagoen elurzuloa, Azketako Neberie izenaz ezagutzen dena, ikusi genuen. Euria tarteko, Xoxoteko aterpera hurbildu eta bertan egin genuen hamaiketako eta guztia.





Elurzulotik behera egin eta Naarsungo parajea Azpeitira begira jarri ginen. Urreta baserrian errepidea hartu eta beste baserrietatik igaro ondoren Azpeitiko elizara iritsi ginen ibilbidea amaituz.

URTARRILAK 31 (Larunbata)

Elurretara irteera: **SOMPORT**

Azkenean elurra iritsi zen eta eskiatzera joateko prestatzen aritu ginen. Aurtengoan ere, azken urteetan gisa, egun berean itzuli ginen etxera.

EGITASMOA hau zen: Urtarrilaren 31n, larunbata, goizeko 6etan ikastolako aparkalekuan elkartu. Autobusa hartu eta Liedenaraino joan ginen lehenik. Hemen geldiu netxo bat egin genuen. Bigarren saioan SOMPORTera iritsi ginen.

SOMPORTen materiala alokatu eta eskiatzeko prestatu ginen, monitoreek aginduta taldetan egokituta gero. Goiza eskiatzen pasatu genuen. Eguerdian atsedena hartuz, bokata jateko gelditu ginen. Arratsaldean berriz, eskiatzen jarraitu genuen, pistak itxi arte. Gero, berriro autobusa hartuta bueltan etxera itzuli. Bueltakoan ere, Liedenan beste paradatxo bat egin eta gutxi gora-bera 9:30ak aldera ikastolara iritsi ginen.

OTSAILAK 22

Oiartzungo bira – 5. etapa **ESKAS – LARREBURUARRIETA**

Abenduan egin behar genuen irteera zen, baina eguraldia medio bertan behera utzi behar izan genuen. Oiartzungo bira muga-mugaz egiten ari garenean, 5. etapa proposatzen ziguten. Hain gurea dugun Aiako Harriaren inguruko txoko eta paraje ikusgarriaz gozatzeko galdu ezin genuen aukera. Ibilbide guztian argazki paregabeak ateratzeko aukera izan genuen.

4. etapa amaitu genuen leku beretik hasi genuen, hau da Iturrolako iturritik. Bertara Ikastolako apar-

kalekuan hartu genuen autobusak igo gintuen. Ibilaldiari hasiera eman eta gure lehenengo helmuga, Bianditzeko lepoa pasa ondoren, Bianditz (841 m) puntara iristea izan zen.

Bigarren helmuga Irumugarrieta (831 m) genuen. Aurrera jarraituta Mairubaratza ingurura iritsi ginen. Bertan Oiartzungo historiaurreko aztarna garrantzitsuak ikusteko aukera izan genuen. Ondoren Errenga eta Usategietatik pasata, Aritxulegira (502 m) heldu. Azken txanpari ekin aurretik, hamaitakoa egin genuen.

Jarraituz, Larreburuarrietatik Enarira iritsi ginen eta inguru zoragarri horretan kobazulo bat ikusi genuen, eta sartzeko aukera ere izan. Larraundi, Sanpedrogaña eta Ezurmenditik pasa ondoren, berriro Larreburuarrietara iritsi ginen. Baina hemen sorpresa genuen: Aiako Harriari bizi diren saiak ikusteko parada izan genuen, beren habiak eta arrautzak eta guzti. Zoragarria, benetan. Ibilbidea amaitzeko Olaundietara joan ginen.

MARTXOAK 15

ERGA MENDIA

Ibilaldi honekin Nafarroara eraman gintuen Ikastolako Mendi Taldeak bere jarraitzaile mendizaleak. Irurtzungo gainean dagoen ERGA mendia izan genuen helmuga. Sakanan, Aralar eta Iruñerriko lautadaren artean, dagoen, 1.094 metroko mendia. Gailurraren azpian, leku zabal bakarrean, Trinitateko ermita dago, eta hura ikusteko eta ezagutzeko aukera paregabea ere izan genuen.

Irurtzuna autobusez, eta handik, errepide zaharretik, Aizkorbe herriko bidegurutzera joan ginen. Handik herriranoiko bidea oinez egin genuen, eta bertako kale estuarentan barrena, mendian gora ekin genion maldari.

Erga mendia hegoalde ekin genion, eta aterpera eta ermitara heldu ondoren, ezkerrera hartuz, Erga mendi gailurrera heldu. Eguraldia ez genuen lagun egun horretan, eta bertako ikusmiraz ezin izan





genuen gozatu: Sakana eta Beriain, Aitzkorri, Aralar, Bi haitzpeak, Iruñerria, Auñamendi, Moncayo... Zerutik ere hainbeste!

Jaitsieran izan genuen aukerarik eta leku egokirik hamaiketako egiteko. Goladaraz herria beti begi bistan genuela, Latasa eta Irurtzun arteko errepide zaharretik barrena amaitu genuen ibilaldia.

APIRILAK 26

OTZAUURTE – TXURRUKOPUNTA (1998) - ETXEGARATE

Egun horretan Aitzkorriko mendikatearen barruan dauden Altzaniako mendietara joan ginen. Mendi hauek Gipuzkoa, Araba eta Nafarroako mugan daude, baina ibilaldiko ingurua, zehazki, Nafarroako lurretatik gertu badago ere, Gipuzkoa barruan dago.

Otzaurreteko benta atzean utzita San Adriango pista hartu genuen. Baso zoragarri batetik igotzen hasi eta pixkanaka Ulzamako lepora iritsi ginen. Leku honetatik, arbola gabeko maldatik barrena, Txurrukopuntako gailurrera ailegatu ginen denbora gutxian. Ikuspegi ederraz gozatzeko aukera aparta ez genuen izan, lainoa eta euria tarteko. Hala ere, bertan izango genituen: Aratz, Aitzkorri, San Donato eta Aralar.

Martxan jarri ginen berriz iparralderantz, azpian ikusten ziren Garagartzako haitzak kokatuta dauden

aldera. Leku polit eta bitxi honetan borda pare bat zeuden eta inguru aproposa izan zen hamaiketako egiteko. Naparraitzeko haitzaren aurretik bi erreka inguratzen dituen bide bat hartu genuen eta baso artean Letaindiko txaboletaraino iritsi. Jarraitzeko ezkerretik basoan sartu eta pixkanaka beherantz eta ezker alderako joerarekin Etxegarate eta Otzaurreteko gurutze-bidera ailegatu ginen. Eta hemen eman genion amaiera ibilaldiari.

MAIATZAK 17

LEITZARAN IBARRA TXIRRINDAZ

Azken irteera honetan mendietako gainak alde batera utzi genituen eta Gipuzkoan dagoen ibar basati bat ezagutzeko aukera izan genuen txirrindua lagun genuela.

Gehienek Leitzaran ibarrak ezagutzen duguna, Plazaola eta Andoaingo artean Leitzaran ibaia zeharkatzen duen eremu zabala da. Inguru honetan baserri bakan batzuk besterik ez daude eta ibaiaren ertzetik 20 km-ko pista batek zeharkatzen du ibar osoa. Garai batean trenbidea zen, XX. mende hasieran Leitzarango meategietan ateratako materiala trenez garraiatzeko eraikia. Hasiera batean Andoaindik Plazaolara iristen zena, Lasarteraino eta Iruñeraino zabaldu zen, pertsonak ere garraiatzeko. Plazaolako trena edo "tren-txiki" izenez ezagutua, 1914tik 1953ra martxan egon zen, uholdeak bideko zubi bat bota zuen arte.

Ibilbidea Andoaingo elizaren parean hasten da, etxe artean, eta berehala trenbidea zena hartu genuen. Aurrerago Auzokalteko zubia eta segidan Otegiatiko tunel luzetik jarraitu eta hortik aurrera asfaltoz bukatuta, makinetxe pare bat utzi genituen eskuinera. Beste tunel txiki batetik igaro ondoren, Sorgin-bide edo Bertxineko Bixerara iritsi ginen. Arroka buruaren gainean genuela, 30 metro beherago Leitzaran ibaia bide estu batetik ur jauziaren bidez irekitzen du bidea. Pista jarraituz presa bat ikusi genuen, beste tunela zeharkatu eta beti ibaiaren ondoan 2 km eta 4 tunelen ondoren Ollokira iritsi ginen. Paraje berezi hau bailararen erdian dago, Andoaindik 10 kilometrora, eta inguruan ola bat, Biskai baserria, tren geltokia, fabrika baten arrastoak eta lur azpiko makinetxe bat daude. Leku aproposa izan zen hamaiketako eta atsedena hartzeko. Itzulera leku beretik egin genuen eta ederki gozatu genuen bailara honetaz.

Hauxe izan da aurtengoa. Milesker Jabi, Motxo, Pako eta besteri. Eta, nola ez, Sherpa mendiko tresnak dendari beti opariekin itzuli garelako etxera. Ea hurrengo ikasturtean ere ibilaldi gehiagoz disfrutatzeko aukera daukagun. Gonbidatuta zaudete!



ESKU BEGI KOORDINAZIOA

Mugimenduaren garapena gorputzaren goialdetik behealdera joaten da; alegia, haurrak lehenago kontrolatzen ditu buruaren mugimenduak hankenak baino. Objektuak hartzerakoan, aldiz, heldu, hartu, atxiki, edo flexionatzeko eragiketak kontrolatzen dira lehendabizi eta gero hedatzaileak (askatu edo luzatzeko eragiketak);

Heltzeko gaitasuna eta ikusmenarena estuki loturik daude. Haurrak objektu bat eskuarekin heldu baino lehen, ikusmenarekin "heltzen" du, begiradarekin objektua jarraituz. Polik-poliki begirada eta heltze prozesua koordinatzen ditu eta biak elkarrekin gidatzeko gauza da, horrela, eskua objektua dagoen lekurantz eramateko gai da.

Haurrak hasieran objektuak ez ditu ekintza kontrolatu baten bidez hartzen, erreflexuagatik baizik eta nahita egindako mugimenduak - hau da, mugimendu kontrolatuak - geroago garatzen ditu.

Atal honetan bi heltze mota bereiz ditzakegu: *heltze erreflexua* eta *borondatezko heltzea*.

1-Heltze erreflexua

- 0tik 2 hilabetera: **Grasping erreflexua**

Eskua hatz edo objektu batekin estimulatuta, tolestu egiten du eta hatzak indarrez estutzen dira.

- 2-4 hilabete: **Ukipenezko heltzea**

Heltze pasiboa du objektu bat ukituta; dagoeneko ez da erreflexua, baina oraindik ez da borondatezkoa. Segundo batzuez euts diezaioke objektu bati eskuan eta, gehienetan, ahora eramaten du.

2. Borondatezko Heltzea

- 4tik 6 hilabetera: **Alboko hurbiltzea**



Haurrak besoa bizkarraren mugimenduaz hurbiltzen du objekturantz.

- 6tik 8 hilabetera: **Hurbiltze parabolikoa**

Oraindik bizkarraren mugimendua nagusi den arren, besoak (ukondoraino) mugimendu zabal bat egiten du eskua objektua irits dadin.

- 8tik 10 hilabetera: **Zuzeneko hurbiltzea**

Koordinatu egiten ditu bizkarraren, besoaren, ukondoaren, besaurrearen eta eskuaren mugimenduak objektua iritsi ahal izateko, eta koordinazioa hobetu egiten da.



Begiratu, besoa luzatu, eskua ireki eta nahi duen objektua hartzeko gai da. Eta nola ez! objektua ezagutzeko ahora eramaten du.



sei ilabeterekin begien eta eskuen arteko koordinazio ona du. Heltzen dituen objektuak ahoarekin esploratzen ditu eta esku batetik bestera pasa ditzake. Begiak eta eskuak koordinatuz objektu bat heldu dezakeen arren, ezin du zehaztasun berarekin askatu. Bi objektu har ditzake, esku banatan.



KAIXO:

ORAINGO HONETAN ELKARREKIN “LEHEN ALDIZ EGIN DITUGUN EKINTZAK” KONTATUKO DIZKIZUEGU:

► HH1



EGUN OSORAKO KARRIKARA JOAN GARA



BOKADILOA BAZKALDU DUGU



JUANIK TIPULAK NOLA LANDATZEN DIREN ERAKUTSI DIGU



PISZINAN JOLASTEN IBILI GARA



MUSIKAZ BLAI!

ASTE HAUETAN MUSIKATRESNAK
LANTZEN ARITUGARA ETA
HAINBAT EKINTZA BURUTU DITUGU.



JOSEBAK MUSIKA TRESNAK
ERAKUTSI DIZKIGU.



JUAN MARI BELTRAMEK MUSIKA
TRESNAK JO DITU.



GELAN HAINBAT MUSIKA
TRESNA EGINDITU GU



BUKATZEKO KONTZERTU
ZORAGARRIA ENTZUN DUGU



Natura zain dezagun!



Gaia ikastolan lantzen ari ginela eta, Pagoetako Naturgunera eguna pasatzera joan ginen.



Bertan bizidunak eta bizigabeak aztertu genituen. Bizidunen artean landareak eta animaliak ikusteko aukera izan genuen.



Animalien artean erlearen inguruan jardun genuen: bizilekua, antolaketa eta produkzioa. Bai ona!



Guri natura garbia eta zaindua gustatzen zaigunez, dena txukun-txukun utzi genuen.

DENON ARTEAN NATURA ZAIN DEZAGUN!!!!!!







**Oiartzunen gauza asko egi-
teko aukera aurkitu dugu:
naturaz gozatu, naturan
ikasi, natura dastatu, ...
Bestela begira, begira.**



► LH 2. MAILA



Ikastolaren eguna



Ikastolaren



eguna



Ikastolaren eguna





UZTAPIDE

Manuel Olaizola Urbiet, Uztapide, 1909ko maiatzaren 10ean Deban jaio zen, Uztapide izeneko baserrian, eta 1983ko ekainaren 8an Oiartzunen hil zen.

Gizon apala eta jatorra zen, bertsolari bikaina eta euskal idazlea izan zen. Horrez gain bertsolaritza tradizionalako eredu garrantzitsuenetako bat da.

Zazpi urterekin hasi zen bertso paperak buruz ikasten eta hamasei urterako bertso zaharrez betea zuen burua. Hamahiru urte zituela gurasoek Gasteizera eramán zuten gaztelania ikas zezan. Hamalau urtetik aurrera hainbat lanbidetan hasi zen, mendi eta baserriekin erlazionatuak. Esate baterako, gaztetan morroi aritu zen. Azkenean *El León* zerbeza fabrika, Donostian, lan egin zuen. Hogeita sei urterekin bertso txapelketa nagusira aurkeztu zen eta bigarren izan zen, Txirritaren ondoren.

1936ko gerra garaian eta ondoren bertsolaritza debekatua egon zen. Baina Uztapide eta Basarrik herriz herri bertsolaritza lantzen jarraitu zuten, tradizio hau galdu ez zedin. Gerra bukatuta 41 urte zituela Oiartzuna etorri zen bere anaiarekin eta Laguntzarrene baserria erosi zuten. Handik pare bat urtetara, han ezagutu zuen neska batekin ezkondu zen, Bidealdeko Kontxi Iturainekin. Seme bat ere izan zuten eta berari bezela, Manuel izena jarri zioten.

1962, 1965 eta 1967an Euskal Herriko bertsolari txapelketa irabazi zuen. Bera izan zen Andoni Egaña iritsi zen arte, txapel gehien lortu zituen.

Hirurogeita lau urte zituela, Anoetako pilotalekuan, bertso jaialdi erdian mutu geratu zen. Jende askok dio: hori bertsolari bati gerta dakioken okerrera da. Handik aurrera bertsoak idatzi egiten zituen. Bi liburu osatu zituen: "Lehengo egunak gogoan" eta "Sasoia joanda gero". Baina badago beste liburu bat bere omenez idatzi zutena. Bertan bertsolariak idatzitako bizipenak eta haren lagunek jasotako istorioak bildu dituzte, "Uztapide berriz plazara" izenburuarekin.

Berak bertso asko eta asko kantatu eta idatzi zituen. Horietako batzuk gaiari erantzunaz. Hona hemen bat:

Gaia: Isuriko zenituen txikitan. Haziagoa izandakoan ere bai. Malkoak.

*Karga aundia bein artu nuen
ta au inoiz ez zait arintzen.
Ni bezelaxe beste bat ere
nola ez da emen mintzen?
Irurogei urte emen eta
asi burua urdintzen.
Ta pena daukat: gure ondoan
atzerritarrak agintzen.*

► **AMAIA, MIKEL, ANDER eta UXUE, DBH 2. MAILA**
Hautzaro ikastolako Bertso Eskolakoak

DINBI - DANBA, DUNBA DUN...
Parkean zer ahaztu dun?

TIRIKI - TAUKE, TIRI - TAUKE...
euria ari du eta aterkia ireki.

DONA - DONA KATONA...
non egongo da nere amona

TXIO - TXIO, TXIOKA...
parkean dago nere amona Beronika.

► **IBON MINDEGIA ETA AITOR ESTEFANO, LH 3. MAILA**




OIARTZUN IBAIAREN AZTERKETA

Kaixo jende!

Gu, DBH 2.go Zientzi Tailerreko ikasleak gara eta Oiartzun ibaian zehar ikerketak egiten aritu gara.

Pasa den maiatzaren 7an, bizikletak hartu eta Pasaiairaino joan ginen Oiartzun ibaiko uren kalitatea eta bere inguruen zainketa maila neurtzera. Pasaian hasi bai, baina gorantz joan behar izan genuen ere, hainbat lekutan neurketak egitera, azkenean, Ariturri amaitu genuelarik. Geldialdi bakoitzean uraren Ph - a, nitrato eta nitrito maila, temperatura, disolbatutako oxigenoaren maila, etab. aztertu genituen. Horretaz gain, inguruan ikusten genituen izaki bizidunak (landareak, animaliak...) zerrendatu genituen ere, baita ikusitako kristal, plastiko, latak, etab. Esperientzia ona izan zen eta gustuko izan genuen!



Neurketak egin ondoren, zenbait ondorio atera ditugu: Ibaiaren goi ibilguko ur kalitatea goi mailakoa da, erdi ibilguko ur kalitatea berriz txarra da leku batzuetan, bereziki lurritan, eta behe ibilguan ere ez pentsa oso kalitate oneko ura denik. Inguruko zaborrei dagokionez ere, hainbat lekutan plastikoa aurkitu ditugu adarretatik zintzilik. Hau ikusirik, ez da arritzekoa zenbait lekutan arraiak ez ikustea edota ura algaz beteta agertu izana.

Hori dela eta, neurri bakar bat proposatzen dugu: etxean egiten ez duguna ez dezagun kalean egin. Zain dezagun ingurua, bidaltzen duguna bueltan etorriko da eta.

► PEIO K., ENEKO O., IÑIGO G eta BEÑAT E.




LH 4. mailakoak ura gaia lantzen aritu gara eta uraren zikloa ikasteaz gainera gure etxeetara ura nola iristen den ikusi dugu.

Penadegiko zentrolean egon ginen eta han, Josebak, Udaletxeko ur arduradunak, erreka ura nola depuratzen den azaldu zigun. Ondoren Elizalden dagoen ur depositora sartu ginen eta han gure etxeetara doan ura bildurik ikusi genuen.

A ze ur pila gastatzen dugun oiartzuarrrok egunero. Bai al dakizue zenbat?

Ez duzue sinetsiko, 4 milioi eta erdi litro ur egunero!

► LH 4. MAILA






ELIKAGAIAK

...eta horrela bizitzen gara... izan da gure 4. unitatea: Elikagaiak, mantenugaiak, jatorria, elikadura piramideak, proteinak, bitaminak, karbohidratoak, dieta orekatua, digestioa, hortz-haginak, listua, urdaila, heste gurui-nak,... eta hainbat eta hainbat kontzeptu berri.

Eta honekin batera, informatikan ere, saltsatu dugu eta gure gaiarekin loturiko gurutzegrama hau asmatu, txanela.net-ek eskaintzen digun programa bat jarraituz. Ia osatzeko gai zareten.

Gaiarekin bukatzeko pintxoak dastatzea egin genuen eta bertako argazkiren bat ikusi nahi ba duzue Haur-tzaroko orrian, geletako blogean begiratu. Hurren arte!

► LH 5. MAILA



Across

2. Europako hiriburukoak diren azakume txiki txikak
7. Txikitan koilareak egiteko erabiltzen den elikagaia.
8. Txinatarrentzat elikagai nagusia.
9. Belarritako moduan erabili daitezken fruitu gorri leunak.
13. Bihotz itxurako fruitu goxoa.
14. Udan dastatzen dugun zuku izoztua.
16. Saltxitxa izandakoa.

Down

1. Azala oso zimurra duen urraren aittona
3. Ugaztun emeek daukaten likido txuria
4. Entsladaren osagai nagusienetarikoa, kolore gorria duena.
5. Ura duen aza, entsaladarren osagai nagusia.
6. Sagardoa egiteko erabiltzen den fruitua.
7. Rubbyko baloiaren antza duen fruitu urtsua.
10. Untxiak oso gustoko duten sustrai laranja.
11. Italianoentzat elikagaien erregina.
12. Urrutitik (Ameriketatik) ekarritako baba.
13. Laranjaren alaba txikia.
15. Oliba olioak egiteko erabiltzen den fruitu txiki hezurduna.



ZIENTIFIKO KUADRILA

Airea materia al da? Nola neurtu bere masa? Eta bolumena? Materia gora, materia behera LH 6. mailakoek zientzilari petoak bihurtu gara. Laborategiko hautsak arrotu ditugu eta gure hipotesi, ondorio eta informazioekin, ordenadoreez baliatuz, materiari buruzko txosten monografiko txukuna osatu dugu. A ze Bakterio profesore pila!

► LH 6. MAILA



EL GATO Y EL TIGRE

Había en cierto paisaje
un gato entrenado.
Luchaba y luchaba
sin estar cansado.
El tigre le vio
y se acercó agachado.
El sabio gato se dio cuenta
y lo miró aterrado.
-¡Enseñeme a luchar así,
sabio maestro apoderado!
El maestro asintió que sí
muy aliviado.

El gato le enseñaba
todo lo dado.
Pero una vez,
el tigre le preguntó cotilleando:
-Maestro ¿cuándo me enseñará,
su secreto más guardado?
-Tiempo al tiempo,
mi querido alumno atigrado.

Un día
el tigre pensó avisado:
"soy más fuerte, soy más grande,
¿por qué esta pulga me sigue enseñando?"
El tigre se abalanzó sobre la presa
muy concentrado.
Entonces el felino
subió a un árbol escalando
"-¿Por qué no me ha enseñado
esta técnica que ha usado?"-
preguntó el tigre
demasiado enfadado.
-Como ya te dije
te enseñé todo lo dado,
pero no te he enseñado
mi secreto más codiciado.
El tigre con cara de pocos amigos
se fue muy humillado.

Esto nos enseña
que por ser más grande
o más fuerte,
no eres más inteligente.

► NAIARA BENITEZ DBH 3. MAILA



...dbh3 artelanetan...

Ikasturtearen azken hilabeteetan plastikan jorratutakoaren emaitzak begi bistan daude eta prozesuaren hainbat adibide ikusi ditzakegu, idatziaekin batera, erakusgai jarri ditugun argazki hauetan.

Pintura, komikia eta eskultura dira ikasleek esperimentatu dituzten zenbait arte esparru. Bolumenera, hiru dimentsiotara egindako jauzi honi dagokionean, aurrez, klasean, hitzartutako zenbait oinarri izan dira abiapuntu.

Bata, eskuragarri dituzten materialekin lan egitea eta, noski, zer eskuragarriago guztiok etxeetan sortzen ditugun soberakinak berrerabiltzea baino; merkeak, ugariak eta ezberdinak.

Bi, neurri handiko eskulturak eraikitzea, gizakioi, hala beharrez, eragin diezaguten eta ikus - inpaktuaz gain gure gorputzarekin eta bere joerekin komunikazioan sar daitezten. Eragin zuzen honek aberastu egiten gaitu eta ikasgaia barneratzea dakar, modu kontziente batetik haratago.


Hiru, emaitzak, ezberdinak izanagatik ere, bere-baitako indarra, maila eta berezko izaera lortu behar

ditu eta horretarako lanketa estetiko bat eta tekniko bat garatzea ezinbestekoa da, modu horretan izango baita arte lana autonomoa eta esanguratsua.

Taldeka eraiki dute proiektua, elkarrekin garatu dituzte lehen ideiak eta prozesua, elkarrekin bilatu dituzte aukerak eta hartu dituzte erabakiak eta elkarrekin egin dute aurrera edo eta atzera, berregituraketa bat behar izan denean. Elkarren artean eutsi diote lanari, multzoa osatu duen ikasle bakoitzaren ardura mailak eragina izan du taldekako lanean, emaitzetan, giroan, sorkuntza erritmoan, lagunarekiko begirunean lehenik eta miresmenean ondoren.

Materialek, objektu hilek, hitz egin dute, zailtasunak jarri dizkigute eta guk aukera bilakatuz erantzun egin diegu, gure eskuez, abileziaz eta adimenaz. Mundu materialak gainezka egiten digun honetan, esperientzia ona da, geure irudimenaz eta sormenaz garaile ateratzea.

Plastikako orduak eskaini dezaketen lanerako denbora - espazio - hartu-eman ezberdinak, aberatsak dira gure ikasleentzat eta ikastolarentzat ere garrantzitsua denez, hara hemen arlo honi eskaini nahi izan diogun zuentzako tartea.





GAZTE FORUKO AZKENEKO BERRIYAK

Kaixo: hiruhillabetero bezela hemen gaude gazte forukuk gue berri emateko

Astezkeneko billerak bukatu ttugu biño ez ekintzak. Uda-ran gauza asko itteko asmuk ttugu beraz atento eon.

Zaragozako atrakzio parkea jungo ga ekainak 20yan, uztailan arkatxoneko aquaparkea, uztailan baita futbito txapelketa dugu,

Gazteoiartzun.net eta hitza bitartez jakingo zute gauza guzti hauen berri.

Koordinatzaile naizen aldetik ESKERRIK ASKO asteazke-nero nekin elkartu zazen ikastola ta elizaldeko ordeazka-riyai; enara, aizea, ekhi, aroia, ugaitz, udane, maider, ane intxauspe, Ainhoa, maialen, iraide, beñat eskamendi, ane gonzalez, , Julen, ander, mikel eluska, Uxue, ane dehesa, fatu eta beñat bengoetxea, ...

Jakin zuen esfortzua gabe ezin izango zela gazte forua aurrea eaman. KRIXTONAK ZAZTE GAZTIAK.

Datorren ikasturtin berriz lanin jarraitzeko prest? Izango zute gazte foruko berri ta bitartin DISFRUTAU !!!!! mezi zute ta..



KUADRILLATEGI GALLURRIN DA

Udara ate joka dugun hontan aurtengo kuadrillategi bukatzen ai zaigu. Urtia ze auro jon zaigun. Hala re oaindik kuadrillategiz gozatzeko beta azken hilabete honetan ez zaigu faltako. Izane, oaindik hor ttugu Ergoingo feste-tan itten dugun afaya, hondartzako irteera, azkeneko oporretako irteera, Arcachongo akuaparkeko irtenaldiya... Hilabete intentsua geatzen dena dudik gabe.

Beraz, aurtengoz hau bukatzen ai denez, aurreko txandan iyotako mendiska (Urkabe) jeistia besteik ez zaigu geatzen. Batzuk gañea geyo ez dute iyoko, izane kuadrillategi bukatu ingo baita batzuntzat. Hala re kuadrillategik haize fresko ta eskalatzaile berriyak hartzeko gogoz itzuliko da hurrengo kurtsuan. Beraz GAZTIAK ANIMATU ZIZTE hurrengo urtian re kuadrillategik hietzako atiak zabalik izango baittin/k.

Opor gaitzak pasa ta kontuz azala erre gabe!!!!!!!!!!!!!!





ESKUTTUN ETA KAMISETAK BIHOTZEAN!

Bat, bi, hiru... LAU. Lau urtez izan gara Eskuttuneko partaide. Lau urte izan dira euskararen alde lanean aritu garenak. Lau urte harrotasunez ikastolan lanean aritu garenak.

Hala ere, gauza guztiek bukaera duten bezala, Eskuttunen egin dugun ibilbidea bere helmugara iritsi da. Hasiera batean lotsatu samarrak etortzen ginen Eskuttunera. Denbora pasatzen joan den heinean, ordea, lotsak eta urduritasunak alde batera utzi ditugu.

Urte hauetan ekintza mordoa egin dugu. Denak gus-tura, baina, normala den bezala, batzuk besteak baino gehiago. Txikiekin egindako lanak izan dira gehien gus-tatu zaizkigunak. Ipuinak kontatu, txotxongiloekin antzerkiak egin, eta, nola ez, Argitxoren urtebetetze egunean gonbiteak banatu!

Eskuttun momentuz utzi egingo dugu, baina ez pen-tsa hori nahikoa motibo izango denik euskaren alde lanean jarraitzeko. Gainera, kamiseta ederrak eraman ditugu oroigarritzat!

ADI 6.MAILA! Datorren urtean ikaragarritzko aukera izango duzue eta. Lagun berriak egin eta euskaraz gozatzeko!

Eta DBH 1 eta 2 jarrai ezazue orain arte bezalako ilu-sio eta gogoekin euskararen alde lanean! Eutsi goiari!

Eskerrik asko guztiagatik

(Batez ere kamisetengatik!).



Josune, Maider eta Anttonek

egin dute lan erdia,

eurak orratza izan dira ta

gu izan gara haria.

Denon artean euskara josiz

egin dugu miraria.

Eskuttun izan da guretzako

euskararen oparia,

ama euskara ez dugu ahaztuko

zuk emandako saria.

► **GAROA, IRAITZ, ARAITZ, LIERNI, AINHOA ETA IZARO, DBH 4. MAILA**





EUSKARAZ BIZI: 3. KANPAINA

“IRAKURZALETASUNA INDARTU”

Gure ikasleentzat antolatu dugun ekimenean, euskarazko literaturarekin gozatzeko beste aukera bat eskaini nahi izan dugu.

Aurten ere erakusketa izan da gune nagusia. Bertan irakurketarako txokoak antolatu dira: Pello Añorga idazlearen biografia eta bibliografia, Jull kanpaina edota literatur lanen kineiak egiteko txokoak izan ditugu.



Erakusketan ikasleek egindako lanak

HAUR HEZKUNTZA



Etxeko ipuinekin gozatu dugu!




Amonaren ipuinak kontatzen!

LEHEN HEZKUNTZA 1-2



Pello Añorgarekin kontuak esaten



Pello Añorgaren biografia



LEHEN HEZKUNTZA 3-4



Herriko linurutegira bisita



Gu, idazle eta irakurle

LEHEN HEZKUNTZA 5-6



Auten ere, gustuko liburua eta ilustratzaile hautatuz, Juul Kanpainan parte hartu dugu



DHB



Hamaika idazle oiartzuarren testuak lotu nahian



Hitza eta bertsoa Iparraldetik



IKASTOLAKO TEKNOLOGOEK BTEK MISIOA GAINDITU DUGU



Hautzaro ikastolako teknologiko DBH 4. mailako ikasleek BTEK interpretazio zentrorako material pedagogikoen froga pilotoa egin dugu eta oso gustukoa izan dugu. Ordenagailuekin jolastuz robotikari buruz zerbait gehiago ikasi dugu eta robot bat programatzen ikasteko aukera izan dugu. Ez zitzaigun asko kostatu eskatutako misioa betetzea, emandako esplikazioak onak baziren ere, gu ikasle azkarrak garela erakutsi baikeuen!

Datorren urtean gure atzetik datozeinei museora joatea gomendatuko genieke.

Ikasle bezain ikastola azkarra! Teknologia interpretazio zentro honetan izango den tailer didaktikoa dastatzen lehenak izan baikara Hautzarokoak!



BTEK Zamudioko parke teknologikoan dagoen interpretazio zentroa da. Gelan egin edo aurkeztu ezin ditugun ekintza eta ezagutza zientifiko-teknologikoak ezagutarazi nahi dituen proiektua da, urte honen amaierarako atea irekitzea espero dena.

Izango duen eskaintza guztiaren artean, robotika tailerra dugu Hautzaro ikastolan lehenez, eta itxuraz, gustura, aurkeztu dena. Tailer honen diseinuan ere, Hautzaroko langileria parte hartzen aritu da azken urte eta erdian.

Halako ekimenek euskal zientifiko eta teknikari berriak piztea, irrika sortzea lortuko du. Bai alajaina!





DBH 4. mailako ikasle bakoitzak, beste lan askoren artean, ikerketa lan bat egin dugu. Ikerketa gaia guk aukeratu dugu eta hainbat bitarteko erabiliz, bakoitzak ondorio batzuk ere atera ditugu. Gure Txinpart honetan ikerketa lanaren zatitxo bat jarri dugu, baina norbaitek lan osoa irakurri nahi badu, datorrela gugana, harrera ona egingo diogu eta.

ZER EGITEN DUTE GAZTEEK AISIALDIAN

Gaur egungo gizarte moderno eta kontsumista honetan, erosotasunak garrantzi handia hartu du, edozertarako autoa... hartzen dugu, oinez edota bizikletan joan beharrean. Ohitura hori pixkanaka gazteak ere praktikatzen joan dira, gaur arte.




Aldizkari, egunkari eta beste hainbat komunikabidetan maiz irakurri izan dut gazteek ez dutela kirolik praktikatzen, aisialdia besaulkian edota ordenagailuaren aurrean eserita igarotzen dutela... Nire iritziz, Oiartzungo gazteek ez dutenez aisialdia alferkerian igarotzen, herriko gazteek aisialdia nola erabiltzen duten ikertzeko gogoaz piztu zitzaidan, adina eta sexua kontuan hartuta. Izan ere, datu horiek orokorrak dira, eta ez dute herri txikietako izendapen zehatzik egiten.

Ikerketa hau burutu ahal izateko, Haurtzaro Ikastola-ko DBHko ikasleei galdera sorta bat pasatu diet. 12-16 urte bitarteko gazteei eginiko inkesta baten datuetan oinarritu da ikerketa.

Ikerketa lan honen helburu nagusia Oiartzungo gazteek aisialdia zertan igarotzen duten jakitea da. Asmoa hori izanik, 164 ikaslerentzat galdesorta egin dut. 10 galderaz osatua dago, hurrengo hiru azpitaldetan banatuta. Lehenik eta behin zaletasun gustukoenei buruz galde egin diet. Ondoren, aisialdia nola banatzen duten jakin nahi izan dut. Eta azkenik, gaur egungo gizarte kontsumista honen erruz aisialdiak gastua ekartzen dien galdetu diet.

Inkesta pasa, datuak bildu eta interpretatu ostean, ondorio batzuk atera ditut: komunikabideen baieztapena Oiartzungo gazteen artean ez dela gertatzen. Izan ere, ia gazte guztiak telebista, ordenagailua... kirolarekin eta lagunekin batera eramateko gai dira.



Kontsumoari dagokionez, ordea, bat nator haiekin, gehienek aisialdian dirua xahutzen baitute. Gainera, neska eta mutilen artean diferentziarik agertzen ez bada ere, neskak handitzen diren heinean, gehiago kontsumitzeko joera dute. Izan ere, beraien burua eder ikusteko, mutilak baino gauza gehiago erosten baitituzte. Orokortuz, guraso eta gazteentzat aisialdia ez da errentagarria. Dena den, dibertitzeko eta ikasteko

balio izango diela ondorioztatu dut.

Bestalde, denbora librean, gazte gehienek lagunekin egotea dute gogokoen, segurtasuna eta dibertsioa ziurtatzeko. Kirola ere praktikatzen dute ia denek, osasuna zaintzeko.

Hala eta guztiz ere, teknologia eta aurrerakuntza berrien inguruan bizi garela kontuan harturik, arrunta da inkestatuek aisialdiaren zati bat haien aurrean igarotzea. Era berean, egokia litzateke, gazteek irakurketari denbora eskaintzea, baina hileroko irakurritako liburuen batzuetan bestekoa 0-1 dela kontuan izanik, liburuak ez dira erakargarriak.

Gainera, gazteek etxera nota onak eraman ahal izateko, denbora librean etxerako lanak edota azterketak ikasi behar dituzte. Hala ere, saiatzen dira hari denbora gutxi eskaintzen, horrela, lagunekin egoteko edo beste edozer gauza egiteko denbora dute.

Bukatzeko esan daiteke, gazteek aisialdia egoki erabiltzen dutela; hau da, ahalik eta hobekien erabiltzen saiatzen direla.



MUSIKA ETA GAZTEAK

Musika gaur egungo gazteen artean aisialdiko ezinbesteko tresna bihurtu dela ohartu nintzen aspaldi samar. Interesgarria iruditzen zitzaidanez, ikerketa lan bat egin tea pentsatu nuen gaiak sakonago aritzeko eta, ondorioz, gazteen artean musikak zenbateko garrantzia duen ikeritzeko.

Izan ere, gazteen bizitzetan ezinbesteko aisialdia bihurtzeko arrazoi batzuk egon behar dute, edo horixe pentsatzen dut nik behintzat. Galdera asko egin nizkion nire buruari: zergatik 5 minutu bada ere ia gazte guztiek entzuten dute egunero musika? Beharrezkoa ote da? Zein dira genero entzutenak? Eta abar. Baina galdera garrantzitsuena hauxe izan zen: lagunek ba al dute influentziarik musika entzuteko orduan?



Diotenez, musikak betidanik izan du postu garrantzitsua gaztearen bizitzan. Bai ikasketa moduan, bai aisialdi moduan.

Horrez gain, musika generoen garrantzia aipatzen da. genero asko dira. Ezagunenak: rocka, popa, rapa edo hip-hpa, punka, heavya, reggae eta musika klasikoa dira. Baina azken honek honako galdera honetara eraman gaitzake: zergatik gazte gehienek musika klasikoa ez dute gustuko? Horretarako informazio asko bilatu eta zein ote diren kausak azaltzen saiatuko naiz informe honetan.

Bukatzeko, eskerrak eman nahi dizkiot inkesta honetako parte hartzaile orori, lan hau aurrera atera ahal izateko laguntza eskaini baitidate. Beraz, besterik gabe, eskerrik asko gutxioi!

Jarraituriko prozedura

Ikerketa honetan gazte euskaldunen laginaz baliatu naiz. 14-20 urte bitarteko gazteak izan dira parte hartzaileak. Gehienak 15-16 urteko gazteak izan dira.

Galderak hiru multzotan sailkatu ditut:

- Egunero entzundako musika
- Kontzertua
- Musika lantzen eta entzuten dutenak
- Gustuak

Interneten aurkitutako hainbat adituren lanetako informazioa ere erabili dut.

Ondorioa

Behin inkesta guztien datuak bilduta eta interneteko informazioari esker, ondorengo konklusioa ateratu dut:

Hasteko, gehien entzundako generoak rock eta pop dira. Gaur egungo gazteak batzuek beste ordu bat eta bi ordu artean entzuten du musika egunean. Horrek esan nahi du bai ikasteko musika lagunari bezala, bai dutxan, bai kalean ibiltzerakoan edo bai etxean lasai direnean ia guztiek musika entzuteko joera edo, beharrra, dutela.

Gazte gehienak kontzerturen batean egon dira noizbait, izan ere, hau gerta-

zteza ez da zaila. Baina inkestetan ateratako datu batzuei esker jakin ahal izan dugu inkestatutako guztien artean %19,2 bakarrik egon dela musika klasikoko kontzerturen batean. Hainbat adituren iritziz, musika klasikoa gazteek "zaharren" gauzatzen dute eta beste arrazoirik gabe inoiz ez dira geratu entzuten; hau da, gustuko duten jakin baino lehen musika klasikoak beren bizitzatik at dagola uste dute. Baina esan beharra dago kontzertu klasiko batean egondako gaztea bere borondatez joan dela eta ez beste inork behartu duela.

Mp3 edo antzeko gailuei dagokienez: ia guztiek dute musika entzuteko zerbait.

Galdera garrantzitsu bat nuen lagunek influentziarik ba ote duten musika entzuteko orduan, eta datuek diotenez, bai, gazteen %30,7ak bere lagunen musika bera entzuten dute eta %50ak antzeko musika entzuten dutela onartzen dute. Beraz, bai, baieztatu dezakegu lagunek entzuten duten musika beraz gozatzen dutela gaurko gazteek.

Bestetik, instrumentuak datoz. Gazte guztiek, gutxi bada ere, musikaz gozatzen dute, baina zenbatek dakite hizkun-



tza hori menderatzen eta sortzen? Bada, datuen arabera %23k soilik daki instrumentu bat jotzen, kontuan izan gabe ikastolan ikasitako instrumentua (gehienetan txirula).

Abestiek duten letra zein garrantzitsua den gazteentzat gutxi batzuk soilik ohartu dira. Zenbatetan jarri da norbait benetan letrak zer esan nahi ote duen entzuten? Ba gazteen %80,7k egiten dute.

Ingeleseko abestiak azken aldian gorakada handia egin dute gure artean eta musika entzunena ingelesez dela esan daiteke.

Gutxi batzuek pentsatu ohi izan dute noizbait talderen bateko partaide izatea gustatuko litzaiekeela, eta burutik pasa zaien horiei inguruko edozein talderen partaide izatea gustatuko litzaiekeela onartu dute.

Azkenik, esan behar da ez dagoela gazterik kanta bera gustuko duenik. Antzekoa bai, baina hainbeste abestiak daude gaur egun gure esku, errepikatzea oso zaila da, eta galdetutako guztien artean ez dago errepikapenik.

Honekin ikus dezakegu gazteok zenbateko garrantzia ematen diogun musikari eta, gehiago edo gutxiago, musikaz zenbat gozatzen dugun.

► DBH 4. MAILAKO NAHIA AGUADO

ZERK MUGATZEN GAITU EUSKARA ERABILTZERA?

Duela urte batzuk Oiartzundik kanpo gurasorik gabe ateratzen hasi nintzenean ohartu nintzen Oiartzundik irten eta ez dagoela euskaraz bizitzeko behar adina baliabide. Leku askotan euskaldunak erdaraz hitz egitera mugaturik gaudela. Arrazoi ezberdinak direla medio euskarak bere garrantzia galtzen duela.

Beraz, aurten ikerketa lan bat egitea proposatu digutenez gai hau aukeratzea erabaki dut. Euskal Herrian euskara ez erabiltzera mugatzen gaituzten faktoreak aztertu nahi ditut.



Jendeak euskarari buruz zer iritzi duen ere jakin nahiko nuke. Izan ere jendearen erabileraren eskuetan baitago hizkuntza bat.

Lan hau burutzeko, Oiartzunen inkesta bat pasa diot adin tarte ezberdineko jendeari. Eta hauek erantzundakoaren arabera jakin dezaket gutxi gorabehera zein diren euskararen mugak. (Oarsoaldean behintzat).

Ahaztu gabe eskerrak eman nahi nizkioke inkesta bete duen orori.

Ikusitakoa ikusirik, eta datuak aztertu ondoren, oiartzuarrok euskara erabiltzeko mugak eduki baditugula esatera ausartuko nintzateke. Erdarak (gure kasuan gaztelaniak) euskarari indarra kentzen diola neurri handi batean.

Kasu askotan gu, euskaldunok, euskaraz mintzatzen saiatzen garen arren, ezinezkoa egiten zaigula elkarrizketa bat behar den bezala egitea, normalean erdaldunen axolagabekeriagatik edo/eta euskaldun askoren utzikeriagatik. Bi aldiz ez errepikatzeagatik lehenengo hitza askotan erdaraz egiten dugula, besteak euskaraz jakingo ez duelakoan. Aurreiritzien alde egiten dugula askotan.

Esan nezake oiartzuarrok ez daukagula euskara dela eta konplexurik, ez eta lotsarik ere. Eta euskaraz egin ordez lehenengo hitza erdaraz egiten badugu aurreiritziengatik dela. Edo hainbat dendatan ez dutelako euskarazko zerbitzurik eskaintzen.

Telebista bera ere erdaraz gehiago ikusten dugula euskaraz baino, kasu honetan ere gobernuetako diruak erdararen alde egiten baitu eta, horrela, erdarazko eskaintza aberatsagoa bihurtzen duelarik.

Oiartzuarron arabera, euskara egoera larrian dago; hala ere, denok uste dugu euskararen alde gutako bakoitzak zerbeit egin genezakeela.

Beraz, aurreiritziak alde batera utziz lehenengo hitza beti euskaraz egin behar dugu, euskararen alde borrokatu nahi badugu. Eta edozein tokitan euskaraz egiteko aukera baldin badugu ez dugu dudarik egin behar euskaraz mintzatu behar dugula.

► DBH 4. MAILAKO IZARO TOLEDO



VISITE AU LYCÉE BERNAT ETXEPARE DE BAIONA

L 6 mai dernier nous sommes allés au lycée Bernat Etxepare de Baiona pour connaître les élèves de l'ikastola d'Iparralde. Nous avons été accueilli par une classe qui nous a présenté l'ikastola ainsi que la réalité socio-économique d'iparralde et plus particulièrement la situation de l'euskara.

Voici quelques renseignements qui nous ont fournis:

L'IKASTOLA

En Iparralde, il y a 21 ikastola primaire (HH et LH), 3 collèges (DBH) et un lycée (DBH4 et Batxilergoa)

Au lycée Bernat Etxepare il y a 203 élèves de la seconde (DBH4) à la terminale (Batzilergoa). Un tiers des élèves proviennent de l'intérieur d'Iparralde (Baxe Nafarroa et Xiberua) et c'est pour cela qu'ils restent toute la semaine à l'internat qui est situé à Kanbo à 20 km de Baiona. Sinon ils auraient presque 2h de route à faire tout les jours pour venir au lycée !!

Dès la 1ère (BB 1) il y a 3 sections : la scientifique, l'économie et sociale, et les lettres. Par ailleurs, ils ont au total 34 heures de cours (3 plus que dans les lycées français) car l'euskara n'est pas considéré comme matière principale.

La scolarisation se fait entièrement en basque mais tous les examens sont en français: en première ils passent Le bac Français qui est un examen écrit et oral sur la littérature française, puis en terminale le BAC qui correspond à la selectivité. L'euskara est considéré comme une option.

LAPURDI, BEHE NAFARROA, ZUBEROA

La population de Lapurdi, Behe Nafarroa et Zuberoa correspond au total à 9% de la population d'Euskal Herria soit 270 000 habitants (en Gipuzkoa par exemple il y a 675000 habitants). En Zuberoa il y a seulement 15 000 habitants soit 0.5 % de la population d'Euskal Herria.

La population d'Iparralde est concentré sur la côte et le secteur économique principal est le tertiaire soit les services et le tourisme. A l'intérieur c'est l'agriculture qui domine.

Il faut souligner, qu'à la côte il y a une importante immigration provenant de l'état français, des fonctionnaires de l'administration, des cadres d'entreprises et des professions libérales principalement ...

La situation du basque n'est pas prométeuse.

La connaissance de l'euskara est de 23% (65% à l'intérieur et 8% à Baiona). Xuberoa est la région la plus euskaldun de tout Euskal Herria mais elle est à la fois la moins peuplée et dont la population est la plus vielle.

Le basque est en régression car elle ne se transmet pas de génération en génération. En général, de 3 couples euskaldun un seulement transmet le basque aux enfants et l'ikastola ne comble pas se vide

Néanmoins, la scolarisation à l'ikastola ne cesse de croître ainsi que dans les sections bilingues (modèle B) et il y a de plus en plus de gens qui sont en faveur de l'euskara.

Par ailleurs, le basque n'étant pas officiel il est n'est pas soutenu par les instiutions et il n'existe aucune politique linguistique visant son développement.

Après avoir présenté à notre tour Oiartzun et l'ikastola Hautzaro, nous sommes tous descendu au petit Baiona pour passer le reste de l'après-midi ensemble.

Vers 18h00 nous étions de retour à Oiartzun avec le sentiment d'être un peu plus proche en étant toujours si loin.



RAFAEL LABANDIBAR

“ Argazkilari izateak ez du nire bizitza aldatu ”

Rafael Labandibar 20 urte inguru zituenetik bizi da bere argazki kamerari lotuta. Azaldu digunez, milioi bat argazki inguru atera ditu bere bizitza osoan zehar, 32.000 argazki azken zazpi urteotan.

Gizon honi argazkigintzan asteko grina inprentan lanean zebilela sortu zitzaion. Inprentan kartelak,

foiletoak, etab. egiten omen zituzten eta haiek guztiak argazkien bitartez egiten zituztenez, egun batean lankide batekin gelditu eta biak hasi omen ziren argazkiak ateratzen.

Labandibarrek adierazi digunez, bere familian ez da beste inor argazkigintzan lan egin duenik, baina bere semeak ere gustukoa omen du kamerarekin ibiltzea.



Rafaelen lehen esperientzia, oso ziur ez dagoen arren, mendiko argazkiekin izan omen zen. Izan ere, dituen argazkietatik gehienak mendian ateratakoak omen dira. Esan zigunez, Aiako Harriari ateratako 605 bat argazki bildu omen zituen duela hiru urte bere albumen artean. Bere argazki kuttunena Aiako Harriari elurrez estalita zegoen batean ateratakoa omen da.

Argazkilari oiartzuar honek bere kameraz lagunduta hainbat esperientzia polit bizi izan dituela kontatu digu eta ziurrenik politenak egin dituen erakusketak izan direla zioen, nahiz eta, hasi baino lehen, urduritasun makalak pasa, dena ongi ateratzea nahi eta.

Oiartzuni argazki mordoa atereak izan arren, berari gehien gustatzen zaiona Altzibarko harrobiaren gainaldetik ateratakoa omen da, izan ere, orain leku beretik argazkia ateraz gero ez omen luke zer ikustekorik izango.

Rafaelek esaten zigun Oiartzungo edozein txoko dela zoragarria: auzo guztiak oso ederrak baitira, Oiartzungo plazatik hasita herriko edozein txokotaraino.

Labandibarren bizitza “ez da aldatu argazkilari izateagatik, lehengo lan berean jarraitu izan dut, baina orain nire benetako zaletasuna da”.

Dударик gabe adierazi zigun, argazkiak hurrei ateratzea duela gustukoan, “zuk nahi bezala jartzen baitira kamera-



ren aurrean; zuk eskatutako guztia egiten dute, hanka altxatzeko eskatuz gero, hantxe mantentzen dute zuk nahi beste denboraz”.

Rafaelek baditu hainbat anekdota kontatzeko, momentuan gaizki pasa arren, orain umorez hartzen ditu eta. Horregatik, esan digunez “ez da ezer egon argazkigintza uztera eraman nauena”.

Argazkilari honek azaldu zigun milioi bat argazki inguru atera dituela bere bizitza osoan zehar eta haiekin hainbat erakusketa egin dituela. Kontatu zigun duela urte batzuk, ailegatu zela momentu bat non ezin zituen argazki guztiak etxean gorde eta Girizia elkarteari eman omen zizkion argazki batzuk. Orain argazki horiek kultur- etxean omen daude.

Jendeak ere berak ateratako argazkiak eskatzen omen dizkio noizean behin; eta ikastolak ere, duela

ez asko, eskatu zizkion ikastola sortu zen garaiko argazkiak. Guztira 100 argazki inguru bildu eta sailkatu zituzten denon ikusgai jarri ahal izateko Haurtzaro Ikastolaren webgunean.

Rafaelekin izandako elkarrizketak gure jakinduria bermatzeko balio izan zuen; asko ikasi genuen argazkigintzaz eta, orain, argi daukagu argazkilari oiartzuar honi zergatik gustatzen zaion hainbeste kameraren atzean ibiltzea. Espero dugu zuei ere argazkigintzarako jakin-mina sorraraziko zizuela gizon honen esperientziak.

**► ARAITZ IPARRAGIRRE ETA LIERNI TELLO
DBH 4. MAILA**



IKASTOLAKO ADMINISTRAZIO ALORREKO LANGILEAK

Zein da zuen eginkizuna?

Arlo honetan lan egiten dugunok orokorrean lan difereenteak ditugu, ikastolako arlo administratiboko lanak bideratzea: Atezaintza, ikastolako mantenua, idazkari-tza, arlo ekonomikoa, arlo akademikoa, administrati-boa, juridikoa, laborala, Hezkuntza Saila eta Udalare-kin harremanak ere sartzen dira.

Idazkaritzan egoteko txandak egiten ditugu eta ego-ten garenak lan bat batean dugu: Telefono deiak jaso eta bideratu, guraso, ikasle, langileen... ohar-ak jaso, bideratu, kopiak egin, ikastolan banatzen diren oha-rrak antolatu eta geletara banatu. Zenbait ekintza berezi daudenean txartelak saldu, jantokiko mezuak jaso eta bideratu, izen-emateak daudenean jaso eta antolatu.

Nola antolatzen zarete?

Lau pertsonak egiten dugu lan arlo honetan. Xabier, atezaina eta mantenu arduraduna da; Arantza eta Paki, arlo administratiboa, arlo akademikoa eta idazka-ritzaz arduratzen dira eta Agustinek, berriz, arlo administratiboa, ekonomikoa eta laborala bideratzen ditu.

Idazkaritzan erreleboak egiten ditugu: Arantzazu Urbietan goizean 2 ordu eta erdi, Xabier Landa arra-atsaldeetan eta Paki Zabala 2 ordu eta erdi egoten gara.

Zuen lanaren alderdi positiboak?

Alderdi positiboena ikastolaren izaera da, enpresa soziala izanik, egindako lanaren ondorioa ikasleak for-matuak ateratzea dela. Ikasleen eta gurasoen jarrera laguntzailea ere nabarmenduko genuke.

Eta zailenak, neketsuenak?


Administrazio ezberdinekin lan egitea litzateke. Beraien irizpide aldaketa, kasu askotan hitza betetze eza ere pairatzen dugu. Lana egiteko garaian "momentuan eta orain" filosofiak lana planifikatzea oztopatzen digu.

Zertan aldatu da urte hauetan zuen lana?


Informatizazioa eta sistematizazioa izan dira azken urteetan aurrerapausu handienak. Hala ere, ez dugu aspertzeko betarik, urtero-urtero zenbait lan aldatu edo berritu egiten dira.



Ezkerretik hasita:
Agustin Vital-Arantza Urbietan-
Xabier Landa-Paki Zabala



Sei desberdintasun daude bi marrazki hauen artean.





Goitik behera ezkerretik hasita:

Imanol Perez de San Roman-Iraitz Sanchez-Aritz Arruabarrena-Garao Arbelaiz- Gexan Esteban-Mirari Agirrezabala-Iñaki Jimeno-Araitz Iparragirre-Nahia Aguado-Aritz Mendibil

Bigarren lerroan, ezkerretik hasita:

Imanol Carcedo-Ainhoa Berasarte-Unai Mitxelena-Izaro Toledo-Joseba Azpiroz-Estitxu Cruz-Gorka Alfonso-Maixabel Etxeberria-Iker Iragarri-Andoni Zabala

Hirugarren lerroan, ezkerretik hasita:

Olatz Retegi-Julen Mindegia-Ariane Errandonea-Iker Arbelaiz-Uxue Urkia-Jon Atxaga-Janire Mitxelena-Aitor Fernandez-Ainhoa Ulla

Laugarren lerroan, ezkerretik hasita:

Jokin Arbelaiz-Lierni Tello-Mikel Salaberria-Leiden de las Heras-Oier Garmendia- Ane Gainza-Unko Ezkurdia-Eider Zabaleta-Gorka Ibarguren



Mendiburu kalea, 2 - ☎ 943 49 47 19



**BIOB
ETKEGINTZA S.L.**

Kanaitza etxea - Garmendi bidea, 3 - 20180 OIARTZUN
☎ 943 492 501 - Fax 943 492 501

construcciones
ARABOLAZA S.L.

Berriztatze lanak

Casa Antsillas Berri (Gurutze) - 20180 OIARTZUN
☎ 943 491 385 - Postakutxa 16 - Fax 943 493 772

NIESSEN

ABB Niessen, S.A.

Polígono de Aranguren s/n - 20180 OIARTZUN
☎ 943 260 101 - Fax: 943 260 250



OIARTZUN

Zure Alcampo, egunero hobetuz



SEAT Ederki, s.l.

Ihurrita Bidea, 13 / 6. lokala - 20180 OIARTZUN - ☎ 943 491 641

Audi Volkswagen OIARTZUN LANTEGIAK, S.L.

Salmeta - Mekanika - Karrozeria

Ihurrita Bidea, 13 / 1-6 lokalak - 20180 OIARTZUN - ☎ / faxa: 943 491 848 - 943 494 136



Easo Motor

FordFocus



Salmenta + Tailerra + Txapetan + eskaintza hoberenak

Untziarri Poligonoa, 10 - 20180 OIARTZUN
☎ 943 26 04 26 / 943 26 03 91



- IBILGAILU IA BERRIAK
- URTEBETEKO BERMAREKIN
- 120 HILABETERAINOKO FINANTZAKETA

☎ 943 260 065
Polígono Tuhala, 6 - 20180 OIARTZUN



LÍDER EN EL
TRANSPORTE INTERNACIONAL

LIDERRA
NAZIOARTEKO GARRAIOAN

Araña buru, 1 - Pol. Lanbarren - 20180 OIARTZUN
☎ 943 491 375 - Fax 943 493 462

